

PRIBATIZAZIORIK EZ
PREKARIETATERIK EZ
LANGILERIA BATU

Urteak daramatzagu, hamarkadak, langileriaren lan eta gizarte prekarizazio handiagoa salatzen. Eta urtez- urte pribatizazioetan fokua jartzen jarraitu behar degu. Mota guztietakoak baitaude. Baina, azken batean, negozio-mekanismoak dira, betikoak aberasten dituztenak eta langile askoren pobretzearen erantzule direnak, desberdintasunen eta diskriminazioen eta lan-eskubideen murrizketen erantzuleak. Azken finean, gutxi batzuen mesedetan, pertsona askori kalte egiten dien sistema kapitalistaren tresna dira.

Hezkuntzan eta osasunean pribatizazioak aski ezagunak dira, eta horien ondorioak ere bai, hala nola eskola-segregazioa, eta, azpikontraten aldeko apustua egiteagatik osasun publikoan zerbitzuak desegitea. Horiez gain, apurka-apurka udaletan edo aldundietan sartu direnak ere gehitu ditzakegu, erakundeek azpikontratei ere atea ireki baitizkiete. Horrela zaintza-lanekin negozio-mekanismo bortitz bat dugu pribatizazioan eta espekulazioan, non batzuek bidea ikusi duten pertsona askoren lanaren kontura aberasteko. Onura basatiak lortzen dira langile migratzaileak eta arrazializatuak esplotatuz, horietako asko emakumeak; desberdintasun- indarkeria- eta diskriminazio-egoerak pairatzen dituztenak.

Pribatizazio horiek, azpikontratazio horiek, negozio berri horiek, ez dute langileen onurarako den aldaketarik ekarri; aitzitik, enpleguaren desegonkortasuna, pobretzea eta lan-eskubideen murrizketak ekarri dituzte. Eta lan-esplotazioko beste eredu arrazista batzuk ekarri ditu, eredu gehiago erasotzen baita biztanleria migratzailearekin eta, oro har, arrazializatuarekin eta, bereziki, emakume langileekin. Mugimendu feministaren deialdiak eredutzat hartuz, oinarrizko eskubideen murrizketei, eta zainketen eskubide unibertsalaren alde premiaz erantzun behar zaie. Zaintza-beharrekin merkantilizatzeari, pribatizatzeari eta espekulatzeari utzi behar zaio.

Langileok nazkatuta gaude oraingo egoeraz. Egunetik egunera, pobrezia-indizeak gora egiten du, etxebizitza garestitu egiten da, soldata-galerak izaten dira, eta pentsiodunen mugimenduak eskatzen duen bezala; ez daukagu pentsio duin, justu eta nahikoa, erosketa-saskia ere izugarri igo da. Laburbilduz, eros-ahalmenaren galera dela eta, pertsona askoren oinarrizko premiak asetzetik oso urrun gaude, bitartean betikoek poltsikoak betetzen jarraitzen dute.

Maiatzaren lehena, aurten, era guztietako promesek etenik ez duten hauteskunde-testuinguruan kokatzen da. Utz diezaiotela hainbeste agintzeari, eta ez dezatela beste alde batera begiratu. Langile asko jasaten ari diren prekaritate-egoeren erantzuleak dira. Pertsonen esplotazio eta baliabide naturaletan, haien, ekonomia-ereduetan aldaketak nahi ditugu. Bizitza duina eta enpleguaren egonkortzea bermatuko dituen benetako neurriak nahi ditugu. Pertsona guztientzako gizarte- eta lan-eskubideak nahi ditugu, eta hau ez da pribatizazioarekin bideratuko; hezkuntza, osasun eta zaintza-sistema publikoa erdigunean jarriz eta hau defendatuz lortuko dugu.

Patronalaren eta edozein gobernuren aurrean behar ditugun lan-eskubideen eta gizarte-eraldaketaren alde borrokatzen jarraituko dugu. Antolatutak jarraituko dugu, kalean elkarrekin ikusiko gaituzue, pertsona guztientzako bizitza duina eta iraunkorra erreklamatzeko!

Gora maiatzaren lehena eta gora munduko langileria!!!